



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

UDALBATZARRAK 2018ko MAIATZAREN 29an EGINDAKO OHIKO BILKURAREN AKTA

2018ko maiatzaren 29an, Alkizako Udaletxean, arratsaldeko 19.30etan, Jon Umerez Urrezola Alkatearen Lehendakaritzapean behean aipatzen diren zinegotziak bildurik, ondorengo erabakiak hartu ziren :

ALKATEA : Jon Umerez Urrezola

ZINEGOTZIAK : Jose M^a Aranzabe Urruzola
Jose Ramon Hernandez Cristobal
Onintza Gorostidi Murua
Uxue Etxebeste Eizagirre
Koldobika Jauregi Zinkunegi

Bere ezin etorria azaltzen du: Xabier Mugika Letamendia

IDAZKARIA: Ane Gomez Urteaga

Ondorengo gaiak aztertu eta erabaki ziren:

1. **Aurreko bilkuretako akten onespena.**
 - **2018ko apirilaren 24an egindako ohiko bilkuraren akta.**
2. **Alkatetza ebazpenen berri ematea.**
3. **Fakturak eta ordainketak.**
4. **120/2018 Epairen berri ematea, hala bada.**
5. **Udal langileen ordainsarien aldaketaren onespena, hala bada.**
6. **Plantila organikoa eta langileen lanpostu zerrendaren aldaketaren onespena, hala bada.**
7. **2017 urterako udal tasen hobari eskaeraren azterketa, hala bada.**
8. **Beleburupe guraso elkarteak aurkezturiko 2017 ekitaldiko diru-laguntzaren justifikazioaren onespena, hala bada**
9. **Beleburupe guraso elkarteak eginiko diru-laguntza eskaeraren azterketa, 2018 urteari dagokiona.**
10. **Garaikoetxea baserriaren lanabesak gordetzeko etxe-orde bat egiteko obra baimena eskaera, G.T.**
11. **Leader eremuko landa-inguruko udalerrien ekonomia sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzaren babesean, diru-laguntza eskaera egitea, hala bada**
12. **Beste batzuk.**
13. **Erregu, galdera eta mozioak**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

.../...

LEHENEN PUNTUA **AURREKO BILKURETAKO AKTEN ONESPENA**

- 2018ko apirilaren 24ko ohiko bilkuraren akta. Irakurri ondoren bertaratuek aho batez onestu dute.

Aktak Udaletxeko Iragarki Taulan eta Web orrialdean argitaratzea erabaki da.

BIGARREN PUNTUA **ALKATETZA EBAZPENEN BERRI EMATEA**

Ondoren aipatzen diren Alkatetza Ebazpenak eman direla adierazi du Udaleko Behin Behineko Idazkari-Kontuhartzaileak, bertaratuak jakinaren gainean geratu direlarik:

25/2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 3koa, Alkizako Aizmendi baserriko ikuiluaren errepide aldeko fatxan konpontze lanak egiteko obra baimena, ebazten duena.

26/2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 9koa, A.S. andreari 6637CXM ibilgailuaren zergatik salbuetsita geratzea onestea, ebazten duena.

27/2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 4koa, Donostiako lan arloko 3. Epaitegiak emandako 120/2018 epaia betetzea, ebazten duena.

28/2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 20ko, J.J. A. Jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, SS8014AW ibilgailuari behin betiko baja emateagatik, dagokion trakzio mekanikodun zergaren itzulera proportzionala onestea, ebazten duena.

29/2018 Alkatetza Ebazpena, maiatzaren 23koa, M.R. jaunak eginiko eskaera onestea, hau da, SS1137AL ibilgailuaren zergatik salbuetsita geratzea onestea, ebazten duena.

HIRUGARREN PUNTUA **FAKTURAK ETA ORDAINKETAK**

Ondorengo faktura zerrenda aurkeztu zen:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

GARRA	308,55
IZFE	1.989,25
IBERDROLA	41,24
ULAHI	562,47
IZADI	193,60
QUISER	277,77
BIDATEK	1.292,28
CORREOS	18,85
MONTTE	150,04
BERRI LANTEGIA	62,68
MOVISTAR	34,21
MOVISTAR	76,58
NATURGAS	5,18
ACSOL	107,19
ACSOL	209,44
ACSOL	113,01
ACSOL	393,07
ACSOL	37,01
ACSOL	29,44
ACSOL	52,85
ACSOL	315,45
ACSOL	1.173,24
EDURNE BENGEOA	186,42
EUSKALTEL	99,19
M.URANGA	698,35
EBA ERKIZIA	983,29
ARGITU	144,73
CALPARSORO INDUSTRIAL	42,63
URBEGI ZERBITZU TEKNIKOAK	286,47
M.URANGA	84,70
MARI CARMEN ECHEVERRIA	84,00
IRAITZ LIZARRAGA	210,00
KIROL AUKERA	382,12
LUIX BARINAGARRENETERIA	1.452,00
MOVISTAR	93,97
MOVISTAR	70,84
IBERDROLA	40,31
LYRECO	247,78



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

DIONISIO ORMAZABAL	15,58
TOLOMENDI	155,55
NORTEGAS	289,46
NORTEGAS	109,15
NORTEGAS	494,64
GASOLEOS AIKORTA	2.450,71
CORREOS	28,23
SOLRED	61,91
EDURNE BENGOA	186,42
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	1.109,01
ELECTRICIDAD ZIZURKIL	769,51
MADERAS GARMENDIA	302,50
IZADI	152,94
GAZTEZULO	22,00
ACSOL	185,15
ACSOL	165,72
ACSOL	29,74
ACSOL	106,00
ACSOL	57,75
ACSOL	38,24
ACSOL	109,83
ACSOL	101,65
MARI CARMEN ECHEVERRIA	345,00
LAU HAIZETARA	3.575,55
TECNIKRONOS	314,60
ACSOL	156,53
ACSOL	200,73
ACSOL	19,06
EUSKALTEL	99,15

ERABAKITZEN DUTE

LEHENA.- Guztira **24.202,51** eurotako kopurua duen faktura zerrendari onespena ematea.

LAUGARREN PUNTUA

120/2018 EPAIAREN BERRI EMATEA, HALA BADA



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Puntu honetan maiatzaren 4ean 2018/27 emandako Alkatetza ebazpenaren berri ematen da.

ALKATETZA EBAZPENA 2018/27

Ikusirik Donostiako Lan arloko 3. Epaitegiak 2018ko apirilaren 25ean emandako 120/2018 Epaia, non legez kanpo lagatako langilea dela eta irizpena deuseza dela deklaritzen duen eta Alkizako Udala Kondenatzen duen Alaitz Bilbao Garay lanean berriro hartzera,

Ikusirik udal interesak defendatu dituen letraduak aipatu epaia ez errekurrizteko eta berau betetzeko egin duen proposamena, eta ikusita Alkatetza honek interesatuarekin adostu duen berriro hasteko data,

Hau horrela izanik, eta alkatetza honek, bere eskuduntzen erabileran, zera

EBAZTEN DU:

LEHENA: Donostiako Lan arloko 3. Epaitegiak emandako 120/2018 Epaia BETETZEA, eta Alaitz Bilbao Garay BERRIRO HARTZEA, 2018ko maiatzaren 7ko eragin datarekin, lan kontratupeko langile gisa, %20ko lanaldian eta 2009ko martxoaren 2ko datako antzinatearekin, eta akordio honetako bigarren puntuan deskribatzen den lanpostura ATXIKITZEA.

BIGARRENA: Lan kontratupeko lanpostu hau udaleko Plantilla Organikoan eta Lanpostu Zerrendan SORTZEKO beharrezko diren pausuak emateko AGINDUA EMATEA. Lanpostua lan kontratupeko eta A2 sailkapen taldean atxikia egongo da Ingurumen Teknikari izendapenarekin eta Udalhitzeko 21 ordainketa maila izango du. Euskara mailari dagokionez dagozkion pausuak jarraituko dira.

HIRUGARRENA: Ebazpen hau JAKINARAZTEA interesatuari, dagozkion errekurtsoak adieraziz.

LAUGARRENA: Burutuko den hurrengo ohiko udalbatza ebazpen honen eta aipatu epailaren BERRI EMATEA.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU.

BAKARRA: 2018/27 Alkatetza ebazpena berrestea.

BOSTGARREN PUNTUA **UDAL LANGILEEN ORDAINSARIEN ALDAKETAREN ONESPENA**



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Idazkari-Kontuhartzailea ARCEPAFE-ko 19. Mailan aurkitzen dela, Udalhitzeko 19. Nibelari dagokion ordainsaria jasotzen duelarik.

Ikusirik Udalhitz konbenioa indarrean sartu zenean, A kategoriarik zegoen gutxienerako nibela 21-a finkatu zuela.

Ikusirik, Udalkideak Idazkari-kontuhartzailearen egoera zuzendu nahi dutela. Proposatzen delarik Idazkari-Kontuhartzailearen lanpostuari Udalhitzeko 21. Nibela onestea, 2018ko urtarrilaren 1eko efektuekin.

Ikusirik, azken urte hauetan operari balioaniztun udal langilearen lan bolumena handitu egin dela. Udal-kideak aipaturiko langilearen nibela, maila batetan igotzeko proposamena egiten dutelarik. Gaur egun duen nibela 9 da eta 10-era igotzea proposatzen dute, 2018ko urtarrilaren 1eko efektuekin.

Gaia aztertu ondoren, bertaratuek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Idazkari-kontuhartzailearen lanpostuak Udalhitzeko 21. Nibela izan dadin onespina ematea. Erabaki honek 2018ko urtarrilaren 1eko eragina izango duelarik.

BIGARRENA.- Operari balioaniztun udal langileari Udalhitzeko 10. Nibela izan dadin onespina ematea. Erabaki honek 2018ko urtarrilaren 1eko eragina izango duelarik.

HIRUGARRENA.- Erabaki hauen berri Udal Idazkari-kontuhartzaileari eta Operari balioaniztunari ematea.

SEIGARREN PUNTUA

PLANTILA ORGANIKOA ETA LANGILEEN LANPOSTU ZERRENDAREN ALDAKETAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Idazkari-Kontuhartzailearen eta Operari balioaniztunaren Udalhitzeko ordain nibelak igo zaizkiela, aldaketa hauek Plantila Organikoan eta langileen lanpostu zerrendan jaso daitezkeen proposatzen da.

Gaia aztertutik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENA: Idazkari-Kontuhartzailearen eta operari balioaniztun langilearen onartutako ordainsari nibelak, 2018 urterako onartutako Plantila Organikoan eta Lanpostu zerrendan aldatzea.

ZAZPIGARREN PUNTUA

2018 URTERAKO UDAL TASEN HOBARI ESKAERAREN AZTERKETA, HALA BADA

Ikusirik 2018 urterako ura eta zabor taseen hobari eskaerak egiteko epea zabaldu zela otsailaren 1etik 28arte (biak barne).

Aipaturiko epean bost eskaera aurkeztu ziren.

Ikusirik Gizarte langileak eginiko txostenetan dioena.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo

ERABAKITZEN DU:

LEHENGOA.- J.M.-eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BIGARRENA.- C.C. -eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

LAUGARRENA.- A.P.P. -eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

BOSTGARRENA.- M.J.O.-eri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

SEIGARRENA.- O.M.-ri ura eta zabor tasetan % 100eko hobaria onestea.

ZAZPIGARRENA.-Erabaki hauen berri interesdunei jakinaraztea.

ZORTZIGARREN PUNTUA

BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK AURKEZTURIKO 2017 EKITALDIKO DIRU-LAGUNTZAREN JUSTIFIKAZIOAREN ONESPENA, HALA BADA

Ikusirik Beleburupe Guraso Elkarteak aurkeztu duela, 2017.urtean Alkizako Udalak emandako diru-laguntzaren memoria eta dagozkion fakturak.

Gaia eztabaidatu ondoren, bertaratuek, aho batez,

ERABAKITZEN DUTE



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

LEHENGOA.- Beleburupe Guraso Elkarteak aurkezturiko 2017 urtean emandako diru-laguntzarari dagokion zuritzea onestea.

BIGARRENA.- Erabaki honen berri Beleburupe Guraso Elkarteari ematea.

BEDERATZIGARREN PUNTUA

BELEBURUPE GURASO ELKARTEAK EGINIKO DIRU-LAGUNTZA ESKAERAREN AZTERKETA, 2018 URTEARI DAGOKIONA

Ikusirik Beleburupe guraso elkarteak, ekaineko egun osoko festan, San Juan bezperako festan, herriko festetan, San Martin eguneko festan eta gabonetan hainbat ekintza burutzen dituztela. Hauen kostua finantzatzeko Alkizako Udalari diru-laguntza eskaera egiten dutelarik.

Ikusirik 2018 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidan Beleburupe Guraso elkarteari 320,00euroko diru-kopuruko laguntza aurreikusi dela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Beleburupe guraso elkarteari 320,00 eurotako diru-laguntza ematea, urtean zehar hainbat ekintza burutzeko.

BIGARRENA: 320,00 eurotako gastua onartzea, eta bere ordainketa egitea agintzea 2018 urteko udal aurrekontuetako 481.320.01.01 partidaren kontura.

HIRUGARRENA: Beleburupe Guraso Elkarteari jakitera ematea, egin duen gastuen memori bat eta dagozkien fakturak aurkeztu beharko dituela, Udalak emandako diru-laguntza zurutiaz.

LAUGARRENA.- Akordio honen berri interesdunari ematea.

HAMARGARREN PUNTUA

GARAIKOETXEA BASERRIAREN LANABESAK GORDETZEKO ETXE-ORDE BAT EGITEKO OBRA BAIMENA ESKAERA, G.T.

Ikusirik G.D.R. andreak, Garaikoetxea Txakolindegia S.L. izenean eginiko eskaera, non Garaikoetxea baserriaren lanabesak gordetzeko etxe-orde bat egiteko obra baimena eskaera egiten duen.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Ikusirik Alkizako Udalak Garaikoetxea baserriko lanabesak gordetzeko etxe-orde bat egiteko obra baimena eman aurretik, Alkizako Arau Subsidiarioetan agertzen den modura Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo Departamenduko sailak on iritzia izan behar duela.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

BAKARRA: Alkizako Garaikoetxea baserriko lanabesak gordetzeko etxe-orde bat egiteko obra baimena eman aurretik G.D.R. andreak, Garaikoetxea Txakolindegia S.L.-ren izenean, Udaletxe honetan aurkeztutako dokumentazioa Gipuzkoako Foru Aldundiko Berrikuntzako, Landa Garapeneko eta Turismo departamentura igorri, azken honek dagokion txostena egin dezan.

HAMAIKAGARREN PUNTUA

2018KO APIRILAREN 24KO AGINDUA, ZEINAREN BIDEZ ARAUTZEN BAITIRA, 2018KO EKITALDIRAKO, 2015-2018 ALDIRAKO EAEKO LANDA GARAPENEO PROGRAMAREN ESPARRUAN ONARTU ZEN LEADER EREMUKO LANDA-INGURUKO UDALERRIEN EKONOMIA SUSTATU, GARATU ETA DIBERTSIFIKATZEKO LAGUNTZAREN BABESEAN, DIRU-LAGUNTZA ESKAERA EGITEA

Ikusirik 2018ko apirilaren 24ko agindua, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu eta garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia egiten duen 2018 ekitaldirako.

Ikusirik Alkizako Udalak asmoa duela aipaturiko diru-laguntza honen babesean, "Alkizako ur horniketa sarearen eraberritzea" proiektua aurrera eramatea.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengoa

ERABAKITZEN DU:

LEHENA.- "Alkizako ur horniketa sarearen eraberritzea" egin behar diren lanak burutzeko diru-laguntza eskaera egitea, 2018ko apirilaren 24ko aginduaren babesean, non, Ekonomiaren Garapen eta Azpiegituretako sailburuarena, non Euskal Autonomia Erkidegoko landa-eremuak sustatu, garatu eta dibertsifikatzeko laguntzen deialdia egiten den 2018 urterako.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

BIGARRENA.- “Alkizako ur horniketa sarearen eraberritzea” proiektua aurrera eramateko onespena ematea.

HAMABIGARREN PUNTUA **BESTE BATZUK**

12.1. TOLOMENDIRI 2018 URTEARI DAGOKION EKARPENA BURUTZEA, HALA BADA

Ikusirik Tolosaldeko Landa Garapen Elkarteak- “Tolomendi-k” aurkeztutako idatzia non 2018ko maiatzaren 7an ospatutako Batzar Orokorrean 2018 ekitaldirako Elkartearen aurrekontua onartu zela jakinarazten den.

Ikusirik 2018 ekitaldirako onartutako aurrekontuaren arabera Alkizako Udalari 2.528,82 euro ordaintzea dagokiola.

Gaia azterturik, bertaratuek, aho batez

ERABAKITZEN DUTE

LEHENGOA.- Tolosako Landa Garapen Elkarteak-Tolomendiri 2.528,82 eurotako gastua onartzea eta ekarpena burutzea. Udal aurrekontuetako 422.943.01.01 partidaren kargura.

BIGARRENA.- 2018 urteko udal aurrekontu orokorrean kreditu nahikoa aurreikustea.

12.2. 2016 OPORRAK BAKEAN PROGRAMARAKO DIRU-LAGUNTZAREN ONESPENA, HALA BADA.

Ikusirik, aurten ere Tolosako Udalak aurten ere Oporrak Bakean programa antolatu duela, programa honen babesean Saharako hainbat neska-mutil etorriko dira Tolosaldeako familietara uda-aldia igarotzea, bere osasuna eta garapena hobetzeko helburu nagusiarekin.

Ikusirik, Alkizako Udalak ere parte hartu nahi duela programa horretan.

Ikusirik, programa hori gauzatzeko hitzarmen bat prestatu dela Tolosako Udalaren eta Alkizako Udalaren artean sinatzeko.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, ondorengo



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

ERABAKITZEN DU:

LEHENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programan parte hartzeko onespena ematea.

BIGARRENA: Alkizako Udalak, Oporrak Bakean programarako 125,00 euro aurreikustea, programak sortarazten dituen gastuekin laguntzeko. Aipaturiko gastua egiteko onespena ematea.

HIRUGARRENA: Alkizako Udalak eta Tolosako Udalak Oporrak bakean programa aurrera eramateko prestatutako hitzarmena onestea. Jon Umerez, Alkizako Alkatea ahalmentzen delarik aipaturiko hitzarmena sinatzeko.

LAUGARRENA: Erabaki honen berri Tolosako Udalari ematea.

HAMAHIRUGARREN PUNTUA **ERREGU, GALDERA ETA MOZIOAK**

13.1. ALKIZAKO GURE ESKU DAGO-k AURKEZTURIKO ADIERAZPENAREN ONESPENA, HALA BADA

Ondoren, Alkizako Gure Esku Dago-k aurkezturiko adierazpenaren berri ematen da, non ondorengoa dioen:

“ALKIZAKO UDAL ETA HERRIARI

Euskal herritarrok bidegurutze batean gaude: hegoaldetik datozen haize atzerakoiak ditugu alde batean, eta demokrazian oinarritutako ziklo berri bat bestean. Zein bide hobesten dugun argi adieraziko dugu ekainaren 10eko giza katean. Erronkari heltzeko prest gaude. Erabakira iritsi arte lan egiteko daukagun determinazioa erabatekoa da. Etorkizun hobe batean sinesten dugulako, ziklo berria zabaltzeko mugarria jartzera goaz. Mugarri hori urrunago edo hurbilago jarri, gure esku dago. Herritarron esku.

Egungo marko juridiko-politikoak ezartzen dituen oztopoak nahikoa ez eta egungo markoa are eta murriztagoa nahi dutenek gure erakundeak jo puntuan jarri dituzte, herritar denon oinarritzko eskubideak urratzeko inolako erreparorik gabe. Katalunian aplikatu du Espainiako estatuak aurrenekoz 155. artikulua, baina Euskal Herrian ere aplikatu dezake. Ez dezagun ahaztu.

Orain arte gatazka politikoa zena, erronka demokratiko bihurtzea lortu behar dugu.



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

Argi dugu, epe luzerako elkarbizitza bermatzeko ezinbesteko baldintza dela erabakitze eskubidea gauzatzea. Elkarrekin etorkizun demokratiko, justu eta duina eraikitze bidean, inoiz baino argiago dagokigu askatasunaren eta eskubide zibil eta politikoen defentsan elkarri eskua ematea. Hain justu, ekainaren 10eko giza kateak balio behar du adierazteko herri hau ez dagoela prest atzera egiteko bere asmo eta helburuetan, aurrera egiteko determinazioa duela. Halaber, etorkizuna elkarrekin eraikitze borondatea erakutsi behar du mobilizazioak, horrek ahalbidetuko duelako mugak eta oztopoak gainditzea eta urrutira iristea.

Euskal Herritarrok erabakitze eskubidea gauzatzeko ditugun milaka arrazoiak biltzen dihardu Gure Esku Dagok; horixe baita, finean, Herritarron Ituna. Erabakitze arrazoen bilduma; herritarren behar, ilusio, asmo eta zergatiak jasoko dituen bilduma zabala. Eta zertarako arrazoi bilketa hori? Bada, arrazoi horiei guztiei demokratikoki bide emateko, eta horretarako behar diren tresnak eta adostasun esparruak elkarrekin eraikitze. Herri bat gara, erabakitze eskubidea dugu eta herritarron garaia da leloetatik abiatuz, erabakitze eskubidea edukiz beteko dugu. Etorkizunean elkarrekin eraiki behar dugun herriari eta gizarte ereduari buruz abiatu beharreko eztabaida zabalari ekarpena egin nahi dio egitasmoak.

Abiapuntu gisa, 2019 arrazoi biltzeko asmoa dugu, 2019. Urtea dugulako jomugan. Esparru anitzetan, gizarte mailan, erakundeetan, zein nazioartean egiten ari diren urrats guztiek bat eginda, datorren urtean erabakitze eskubidea gauzatzeko aukera berriak sortu daitezkeela sinesten dugu. Euskal Herritarrok nolako etorkizuna nahi dugun irudikatu eta eztabaidatzen hasteko unea da.

Ziur gaude erabakitze arrazoen bilketak lagunduko digula ikustarazten nola gauden herri gisa, eta ohartarazten zein diren gure beharrak eta gure mugak. Herri gisako erronkak eta lehentasunak zehaztu eta erabakitze eskubidea gauzatzeko modua adosteko unea iritsiko da orduan. Denon artean heldu beharreko erronka, eragile politiko eta sozialek eta herritarrok elkarrekin osatu beharrekoa. Horixe da GED ek aipatzen duen Herri Ituna. Eztabaida, ekarpen, proposamen eta adostasunaren bidez eraikiko dugun tresna dinamikoa izango da.

Erabakitze eskubidea badugu eta arrazoiak ere soberan ditugu. Gauzatzeko ibilbidea elkarrekin adostea dagokigu orain. Eta hori guztion ardura da. Herri bezala jarduteko garaia da. Elkarrekin. Ezin baitugu Aukera historiko hau galdu. Ezin gara geldirik geratu. Gure garaia da. Herritarrona. Determinazio osoz goaz aurrera, herritar burujabeok eraikiko dugun herri burujabera. Jende zoriontsua



ALKIZAKO UDALA
(GIPUZKOA)

izan nahi dugulako, herri libre batean. Ekainaren 10ean eman diezaiogun eskua etorkiZUnari!

Erabakitzeko eskubidea dugu! Erabakitzeko milaka arrazoi ditugu! Adostu dezagun bidea elkarrekin

Guzti honengatik, Alkizako Udalari eskatzen diogu, bat egin dezala GURE ESKU DAGOK antolatzen dituen ekimenetan eta luza diezaiola herri guztiari EKAINAK 10ean egingo den GIZA KATEAN parte hartzeko deialdia bertaratzeko izena emanaz.

Gaia azterturik, Udalbatza honek, aho batez, Alkizako Gure Esku Dago-k aurkezturiko adierazpena bere osotasunean onesten du.

Eta aztertu beharreko beste gairik ez dagoenez, Lehendakari Jaunak bilkura 22.15 etan amaitutzat eman du eta akta hau jaso da, etorri diren guztiek izenpetu dutena eta Idazkari naizen honek, aztertu denaren benetako adierazgarria dela uste duena.